

EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASERAKO ZINTA MAGNETIKOETAN GRABATUTAKOAK CD-ROM EUSKARRI IRAUNKORRAGORA PASATZEKO BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK ETA EUSKALTZAINDIAK SINATURIKO

HITZARMENA

Durango, Euskal Liburu eta Diskoen Azoka inaugurazio egunean, 1994.eko abenduaren 7an, Ignacio Javier Etxebarria Etxeita, Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakaritza Saileko diputatuak eta Jean Haritschelhar Duhalde, euskaltzainburuak, sinatu dute Udaltxean, arratsaldeko ordu batetan, EHHA-erako zinta magnetikoetan grabatutakoak CD-ROM euskarri iraunkorragora pasatzeko *hitzarmena*. Mahaian zegoen, aipatu sinatzaileekin, Pilar Ardanza, Durangoko alkate anderea.

Hitzarmena sinatu aurretik honako hitz hauek esan ditu Etxebarria Etxeta jaunak:

E.H.H.A. CD-ROM

Durango, 1994-12-07

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita

Jaun-Andreok, egunon.

Lehenik, guztioi eskerrak hona etortzeagatik. Badakit nik gaur ordu honetan tenagarria izan daitekeela, zuentzat, alboan dugun Azokara joatea, edota, zubi luzedun aste honetan, kanpora joatea, horregatik ba, berriz nire eskerrak, eta bereziki, komunikabideetako langileoi.

Sarri entzun izan diot Haritschelhar jaunari, aspaldion Euskaltzaindia bi altxor erakitzen, biltzen, ari dela: bata, *Orotariko Euskal Hiztegia*, eta bestea, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa. Guztiz bat nator berarekin, asko gara euskalzaleak, lan horien bukaeraren zain gaudenak, horiek izango baitira, gero, lan eta ikerketa askoren oinarri.

Gaur Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren inguruan bilduak gara. Urteetan Euskaltzaindia herri-hizkuntzaren erromes ibilia da; ahozko herri-hizkera gorde den santutegiz-

-santutegi, herriz-herri, euskalkiz euskalki altxor bila, gure euskaldunzaharren ahozko hizkuntzaren bila. Eta dagoeneko egin du bere bilketa, badu izugarrizko altxorra, ez urrez hornitutakoa, euskaldunen berbez, esaldiz, osatua baizik. Eta hori guztia batu eta zintetan gorde du, Euskal Herrietako ehundaka herrietako hitzak ditugu bertan, Zube-roako mintzaira zolia, Gipuzkoako herrietako "z" laztandua eta gure Bizkaiko lekukoak ere badira: kostaldeko berbeta kantaria, Arratian egiten den bustidura gabeko hizketa sendoa, eta hemen, Durangaldean egiten dugun ahozkeras lasaia. Guztiak ditu Euskaltzaindiak bilduak eta zinta magnetikoetan gordeak eta zainduak.

Duela hil batzuk, Euskaltzaindiko egoitzara joan nintzenez, zinta mordo hori erakutsi zidatenean eta bertan zegoena azaldu, itzeleko lana iruditu zitzaidan, baina ondoren, honako hau ere esan zidaten: altxor hori galtzeko arriskuan zegoela, zintak denboraren puruz, alferrik galtzen zirela, egunak joan ahala, zintetan zeuden ahotzak poliki-poliki isiltzen, galtzen joango zirela. Eta bazutela egitasmo bat hori konpontzeko, bertako ahotsak betirako iraunarazteko baina horretarako, dirua ere beharrezko zela.

Nik ez dakit, hemendik ehun edo berrehun urte barru, hemen izango diren euskaldunentzat zer balio izango duten gaur hitzarmen hau izenpetzekoan gorde nahi ditugun zintek, baina nik badakit zein pozgarri izango litzatekeen guretzat Picaud jaunak idatzitako "Deum vocant urçia" orduko ahozkeraz entzuteko aukera izango bagenu. Badakigu, baita ere, zenbat lan, zenbat ahalegin egin duten eta egiten ari diren euskal ikertzaileek euskararen lehena, historia eta bilakaera aztertu nahian, eta zein esker onez hartzen duten datu bat, idatzi zati bat, euskararen izanak utzitako aztarna bat.

Horregatik ba, guretzat eta Bizkaiko Foru Aldundiarentzat, guztiz da pozgarria, gerorako, bihar izango diren euskaldunentzako, gaur oraindik gure esku artean daukagun euskararen lekukotasuna iraunarazteko hemen egiten dugun ahalegin apurra.

Euskara idatzietan agertzen den hizkera baino aberatsagoa da, biziagoa da: hiztun euskaldunek ematen dioten aberastasunarekin, herriz-herri, euskalkiz-euskalki hornitua eta osatua.

Gure Leizarraga zaharrak esaten zuen euskara ia etxetik etxera ezberdina zela; ia bostehun urte geroago, guk ere, aberastasun hori azpimarratu nahi genuke eta geroari eskaini altxor hau dastatzeko aukera.

Gaur hemen sinatzen dugun hitzarmena asmo hori gauzatuko duen zutabearen harri apal izan bedi.

Eskerrik asko guztioi berriz, eta batez ere, Euskaltzaindiari partaidetza honen aukera ematen diolako Bizkaiko Foru Aldundiari.

Bilbo, 1994.eko abenduaren 7an

HITZARMENA

Batetik, Ignacio Javier Etxebarria Etxeita, Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakari-tza Saileko diputatua.

Eta bestetik, Jean Haritschelhar, euskaltzainburua.

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jaunak, Bizkaiko Foru Aldundiko Lehendakari-tza Saileko diputatu legez hartzen du parte, eta Jean Haritschelhar jaunak Euskaltzaindiaren izen eta ordezkari legez.

Alderdi biek hitzarmen hau izenpetzeko ahalmena aitortzen diote elkarri, eta honako hau dute

Adierazi

1. Euskaltzaindia nortasun juridikodun erakundea dela eta irabazasmo gabekoa gainera, bere helburu orokorra euskara aztertu, zuzendu eta bultzatzea dela eta horretarako beharrezko diren ekintza guztiak sustatu, antolatu eta eratztea.

2. Azken urteotan Euskaltzaindiak, Euskal Herriko Atlas Linguistikoa egin ahal izateko, 145 herritan hainbat galdeketa grabatu egin dituela, eta grabaketa hauek zinta magnetikoetan gordeta daude, eta horregatik, urteak joan ahala informazio hori galtzeko arriskuan dagoela.

3. Grabatuta dauden 3.500 ordu horiek hizkuntza, eta batez ere euskalkiak eza-gutzeko altxor paregabea dela, horretan oinarrituko baitira aurrerantzean ahozko erabilaren ikerketa guztiak.

4. Zinta horietan dagoen informazio errepikaezina dela, grabatutako zenbait lekuko dagoeneko zenduak direlako, eta gaur egungo lekukoek horiek emandako hainbat informazio galdua dutelako.

5. Euskaltzaindiak duen altxor paregabe hori, bere balioa areagotzeko, ahal den neurrian, Euskal Herriko, eta bereziki unibertsitateetako ikertzaileen esku ipintzea komeni dela baina, batez ere, dokumentu horien iraunkortasuna ziurtatzea premia-premiazkoa dela, bere kalitatea galdu aurretik.

6. Zintetan dagoen informazioaren iraunkortasuna ziurtatzeko, digitalizatu ondoren, CD-ROM euskarriari edukitzeak etorkizunean informazio horren uztiaketa egiteko bide berri eta aukera ugariak zabaltzen dituela.

7. CD-ROM euskarrian edukitzeak etorkizunean informazio horren uztiaketa egiteko bide berri eta aukera ugariak zabaltzen dituela.

8. Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskaltzaindia 1918. urtean bere egoitzan sortu zenetik, euskara eta erakunde hau bultzatzeko guraria izan duela agertzen du.

9. Bizkaiko Foru Aldundiak begirune berezia izan duela euskalkien altxorra zaindu eta gordetzeko, eta erabat onartzen duela Euskaltzaindiak dituen zinta horien garrantzia etorkizunean euskalkiei buruzko informazioa bermatzeko.

ERABAKI ATALAK

Lehena:

Euskal Herriko Atlas egiteko Euskaltzaindiak grabatuta dituen zinta guztiak CD-ROMera pasatuko dira, 44,100 kilohertzio eta 16 biteko formatoan.

Bigarrena:

Lan hori egiteko erabiliko diren CD-ROM guztietan Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskaltzaindiaren ikurrak serigrafiatuko dira.


Hirugarrena:

Bizkaiko Foru Aldundiak 7.000.000 pezetatako dirulaguntza emango dio Euskaltzaindiari lan hori gauza dezan.


Laugarrena:

Lan hau 1995.eko uztailaren 31a baino lehen amaitu beharko du Euskaltzaindiak.

Eta goian esandakoaren adostasunez, laukoiztuta izenpetzen dute esandako leku eta egunean.



Lehendakaria Dipatuak.



Euskaltzainburuak

ESKERRONEZKO HITZAK

Eskerronezko hitz hauek esan ditu gero Jean Haritschelhar euskaltzainburuak:

Pilar Ardanza, Durangoko Alkate andere agurgarria. Eskerrik beroenak eman behar dizkizut guretzat hain garrantzitsua den ekintza honetarako Udaletxearen eta bilera areto honen atea zabaltzeko. Zuri ere, I. Etxebarria Etxeita jauna, eta ordezkatzeko duzun Bizkaiko Foru Aldundiari nire eta Euskaltzaindiaren eskerrak eman behar dizkizuet sinatu dugun Hitzarmenaren bidez laguntza paregabea burutzeko aukera eman diguzuelako.

Zuk, Etxebarria jaunak esandako hitzetan, ondo azaldu duzu zer den Euskal Herriko Hizkuntz Atlas eta egitasmo hau burutzeko talde batek egin duen lana, hots, Herri honetan sekulan egin ez dena: 145 tokitan hizkuntzaren ahozko datuak bildu, lekuko bati 2800 galdera eginez 4000 orduko grabaketak 2400 zintetan finkatuz. Eskueta daukagu ondare hau eta ez dugu galdu behar; altxor honen balioaz ondo baino hobeto konaturatu da Bizkaiko Diputazioa.

Aspaldidanik zegoen Euskaltzaindia arazo honekin kezkatuta, zinta magnetikoetan bilduta zegoen altxorra denborarekin galtzeko arriskuan baitzegoen. Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren zuzendari teknikoek eta Euskaltzaindiaren fonotekako arduradاران bibliotekariak, Madrilen, Baionan eta Bilbon merkatal etxetatik lortu zituzten euskarria aldatzeko proiektuak eta aurrekontuak. Baina dirutza handiko aurrekontu hauek ordaintzeko ez zeukan gure erakundeak dirurik, ez genuen pagatzen ahal. Ordu onean etorri zarete, zinta magnetikoek zuten grabaketaren kalitatea galdu orduko CD-ROM euskarri pasatzeko aukera emanez, iraupen handiagokoa, noski. Mundu honetan ez da ezer betirako, baina geroak gero.

Euskaltzaindiaren gidaritzapean bildu dituzte Atlasekoek euskalkien lexikoa, morfologia eta etnotestuak (ohiturak, kantuak, eta abar) egungo euskararen ahozkerari, tokian tokikoa grabatuz. Euskalkien alde ez du inork Euskaltzaindiak bezala lanik egin, ahozko lekukotasuna betirako bilduz. Hogeitamar urte barru jakin dezakete ikertzaileek nola mintzatzen zen euskara Durangon edo Baigorriin, Hegoaldeko eta Iparraldeko 145 herrietan. Duela 80 urte, Trebisch jaunak, 1913an, diskoetan grabatu zuen orduko hizkuntzaren lekukotasun xumeari segida eman dio gure Erakundeak, askoz ere sakonagoa, zabalagoa eta nolabait sistematikoagoa. Eta hau guztia euskarri iraunkoragoan grabatzeko sinatu dugun hitzarmenagatik nola ez eskerrak eman Bizkaiko Foru Aldundiari. Erranen diozu ordezkatzeko duzun Erakunde horri zein pozik gauden, halako akordioa sinatu dugulako. Eskerrak beraz, berriz, ere, bihotz-bihotzetik.

Pilar Ardanza andereak bukatutzat eman zuen ekitaldia, Durangoko Udaletxearen erabilera uztea pozgarria zela adieraziz. Euskaltzaindiarentzat atea beti zabalik izango direla errepikatu zuen.